

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € · 2024ko ekaina
289 znb

22-31

Gemma
Rierari
elkarrizketa

32-37

Burujabetza
digitalaren bila

38-45

Kulturartekotasuna
eta iritsi berri diren
ikasleen zailtasunak

50-52

Bizitzarekin bat
egiteko eguna

54

Atzeko atletik

Legearen aukerei begira



Ikusi Zizarerekin
batera zer gertatzen den
lau urtaroretan!

Zizareren Mundua Urtaroak



Esther van den Berg

TTQRTTQLO
www.ttarttalo.eus

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.

Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus;

Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus

Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpirotz, Ainara Gorostitzu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Garmendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugarte-txea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanado, Nerea Agirre, Nerea Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabarro, Amaia Antero, Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran, Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Garmendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi, Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Gofi, Nerea Mendizabal, Maialen Oiarzun, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde, Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz, Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2024-5-3).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorki haiekin.

Aurkibidea

“

Euskara atzerriko hizkuntza gisa irakasten duen eskola-curriculum batek zer-nolako euskal izaera transmiti dezake?

Joxe Manuel Odriozola

6 EDITORIALA
Biharamunerako lanak

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA
Julia pastoral

12 GAI NAGUSIA
EAEko Hezkuntza Legearen aukerei begira



22 ELKARRIZKETA
Gemma Riera



32 ESPERIENTZIA
Burujabetza digitalaren bila

38 EKARPENA
Kulturartekotasuna eta iritsi berri diren ikasleen zailtasunak. Irakasleen begirada




46 AHALDUNTZE ESKOLA
Estetikaren diktaduratik ihesi

50 PROPOSAMENA
Bizitzarekin bat egiteko eguna



54 ATZEKO ATETIK
Vanessa Rodriguez, Axun Segurola eta Egoitz Lizundia



Hik Hasik EAEko Hezkuntza Legearen irakurketa egiten duen monografikoa argitaratu du. Marko berrian irekiko diren aukerak baliatzeko, hausnarketarako tresna eta akuilu izan nahi du. Beti ere denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza sistema propioa ipar hartuta.

Aldizkari honekin batera ikusi du argia **Hik Hasi**-ren 36. monografikoa: *EAEko Hezkuntza Legea. Biharamunerako koordinatuak*. **Hik Hasik** 2017an plazaratutako Hezkuntza Proposamena abiapuntu hartuta eta talaia horretatik begiratuta, EAEko Hezkuntza Legearen irakurketa egin du. Hezkuntza Proposamenean hezkuntza hobetzeko deskribatu ziren hamar gakoak legean nola jaso diren aztertu du, eta era berean, begirada ireki eta biharamunerako bidezidorrak marrazten saiatu da.

Hik Hasi osatzen dugun sare guztietako hezkuntza komunitateko kideentzat (irakasleak, hezitzaileak, langileak, familiak, ikasleak...) EAEko Hezkuntza Legea ez zen aldarrikapen bat, ezinbesteko urratsa baizik euskal hezkuntza etorkizunera begira jarri nahi baldin bada; are gehiago, etorkizunari euskal hezkuntza propioaren bidetik heldu nahi baldin bazaio.

Legeak marko berri bat ezarri du Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan eta hainbat bide berri ireki ditu. Hezkuntza Proposamenean aipatzen ziren hiru gakori bide eman die, sistema publiko berri bateratzailea eta inklusiboa Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoaren bidez sustatzeko oinarriak ipiniz, ikastetxe publikoen autonomia bi urteko epean garatzeko konpromisoa agertuz eta beste era bateko antolaketa administratiboaren aukerari leiho bat irekiz. Hiru oinarri horien garapenean ikusiko da sare bateratua eratzeko bidean ikastetxeen eskubideak eta betebeharrak eta haiekiko jarraipen-neurriak eta neurri zuzentzaileak ondo zehazten diren eta gure hezkuntza propioa eratzen joateko behar bezain zimendu sendoak jartzeko ausardiarik ote dagoen, hezkuntza zerbitzu publiko anitza, autonomiaz baina ekitatez gara dadin.

Euskararen irakaskuntza sendotzeko konpromisoari dagokionez, zalantzak sortu dira, baina argi dago zehaztu den markoaren barruan orain baino eraginkorragoak izatea dela erronka, baldin eta ikasle guztiek euskaraz gutxienez B2 maila lortzea nahi baldin bada.

Hau da markoa, ireki dituen aukerak baliatuz ez bairik gabe garatu behar dena. Legeak dakartzan aurrerapausoak urrats estrategiko eta esanguratsu bilakatzeko lanean jarraitu behar dugu, betiere Euskal Herri osorako bidean urratsak egiteko eta eragile guztiok norabide berean arraun egitera iristeko.

Biharamunerako lanak

Editoriala



Alizia Fernandez Huarte

Oiongo Ramiro de Maeztu eskolako irakaslea
eta *hik*/hasitarra

Orain oporrak datozela

Gutxi hitz egiten da irakasleok orokorrean sentitzen dugun presioaren inguruan, opor luzeak izateagatik horri buruz hitz egitea debekatuta izango bagenu bezala. Gure egunerokotasunean berriz, helburu guztietara heltzen ez garenaren sentsazioa dugu, eta horren ondorioz ardura, nekea eta, askotan, etsipena sentitzen dugu.

Gure lana, gorputz osoa estaltzeko heltzen ez den tapaki baten modukoa da: burua tapatzen badugu, oinak hozten zaizkigu, eta alderantziz. Eta adibide grafikoekin jarraituz, irakaslea, zirkuan makil baten gainean platertxoak dantzan mantendu behar dituen artista da... bat mugitzen duen bitartean, besteak gelditzen doaz, eta kurtsoa pasa ahala gero eta platertxo gehiago ditu dantzan, heldu ezinean.

Carlos Magrok adierazten duen moduan, azken bi hamarkadetan, eskolengan eta zehazki irakasleengan sortu den presioa eta eskakizuna izugarri igo da, konplexuagoa eta anitzagoa den testuinguru batean: bermatu behar dena ez da, lehen bezala, ume guztiek hezkuntza izateko eskubidea dutela (hau da, eskola batera joateko eskubidea), ume guztien kalitatezko hezkuntza baizik. Ikasle aktibo, parte hartzaile, autonomo, malgu, curioso eta kritikoak izan behar dira eta horretarako kooperatzeko, autoebaluatzeko, hausnartzeko eta planifikatzeko gai izan behar-

ko dute. Ardura horrekin, eta gizarteko inertziak lagunduta, presaka ibiltzen gara, benetako ikaskuntza batek denbora behar duela konturatu gabe.

Horrez gain, kontu guztietara heldu nahian, zoratu egiten gara, baina argi izan beharko genuke gure eskola, umeen lehen eskola izan beharko litzatekeela, baina ez azkena. Hau da, ikasleak bere bizitza osoan ikasten jarraitzeko aukera bermatu behar dugula; eta, horretarako, behar diren ikaskuntzak lehenetsi beste kontu guztien aurretik; metaforarekin jarraituz, platertxoak ongi aukeratu beharko genituzke.

Beste alde batetik, administrazioak batzuetan, (ebaluazioan adibidez), ikaskuntza prozesua *Excella* bihurtzea nahi du, neurgarria izateko. Baina irakasleak burokrazian itotzeaz gain, egoera horri aurre egiteko behar dugun malgutasuna baldintzatzen du.

Eta azkenik, indibidualtasunean murgilduta bizi garen honetan, izugarri kostatzen zaigu gure zilborretik begirada altxatzea, baina lan hau ezin da bakarrik egin, eta batez ere, ezin da irakasleok elkar zaindu gabe. Lankidetzan aritzeko kulturara jotzeko beharra dugu, proiektu kolektibo batean: denok batera adosten, begirada berdina bermatzen, ardurak partekatzen eta elkar zaintzen.



Xabier Sarasua

Irleko irakaslea eta *hik*/hasitarra

Gurasoon ardura

Umea jaiotzean, guztiz aldatzen zaizkizu bizitza eta ikuspegia. Zaila da sentitzen den poza eta betetasuna azaltzea. Rol berri bat ere pizten zaizu: haurren ardura. Eta bihotza loratzen zaizu, bat-batean, eta, lorea zabaldu ahala, inoizko atxikimendu sentipenik handiena sentitzen duzu pertsona txiki horrekiko. Haatik, argi duzu zutaz aparteko norbait dela, eta ezberdina. Ez zarela haren jabe, bidelagun baizik. Zer izango ote du gustuko? Zer dohain eta ezaugarri izango ote ditu? Zer ekarpen egingo ote die ingurukoei? Zoriontsu izateko modua aurkituko al du?

Lehentasunak aldatzen zaizkizu eta erabaki garrantzitsuak hartzen dituzu. Esaterako, lehen urtean eszedentzia eskatzea, uneoro haurrekin egotea. Eta, gero, 3 urte bete arte erabakia luzatzea, haurren garapenean etapa horrek duen garrantzia aintzat hartuta, ondorio pertsonal guztiekin.

Baina, hortik aurrera, beste kezka bat sortzen zaizu: zer eskolatara eraman? Haurrak jada sozializatu nahi du, eta pentsatzen duzu eskola lagungarria izango zaiola horretarako eta bere gaitasunak garatzeko. Baina horrela ote da? Orain arte maitasun handiko ingurune goxoan hazi eta gero, ez al zaio samingarria gertatuko taldean aritzea? Gai izango al da andereñoa edo

maisua ikasgelako haur guztiak zaintzeko?

Agian aurkituko dugu gure kezka eta nahiei ondoen erantzungo dien aukera, eskola txiki batean adibidez: ratio txikiak dituzten bokaziodun maisu-maistrak, 2 urtetik 5 urte arteko haurrak elkarrekin, giro goxoa eta lasaia, natura ingurunea...

Baina, orduan, kezka berria hasten zaizu indar hartzen: zer eskolatan emango ditu derrigorrezko hezkuntzako 10 urteak? Egungo hezkuntza sistemaren xedea ez da ingurune egokia eskaintzea, haurren berezko dohain eta gaitasunak gara daitezen; aitzitik, haurrak eta gazteak instituzionalizatzea eta sistemak behar dituen moduko pertsonak forma(tea)tzea du helburu. Beraz, etxean hezten badugu? Eskola libreak ere aukera ona dira, pedagogia aktiboen bidetik haur bakoitzari bere garapenean laguntzeko... Bizi Tokiren tankerako esperientzia komunitariorik, orde, ez dugu inguruan... Waldorf eskolak, bere aldetik, aintzat hartzen ditu haurren osotasuna, dohainak eta erritmoak... Ikastolak ere herritik herrirako sortuak dira, eta gure hizkuntzari eta kulturari behar duten garrantzia eskaintzen diote... Administrazioaren titularitateko eskolak, aldiz, egokiak dira parekidetasunean eta aniztasunean bizitzen ikasteko...

Ai, eskola bakoitzaren onena bilduko lukeen euskal hezkuntza sistema bat bagenu!



Hileko irudia

Julia Fernandez maistrari, pastoral bat

Iruñeko Zaldiko Maldiko elkarteak Julia Fernandez Zabaleta maistra eta aitzindariari aitortza egin dion pastora estreinatu zuen maiatzaren 4an. Julia Fernandez Zabaletak (Iruñea, 1898-1961) irakasle ikasketak egin zituen Iruñean, eta hiriko San Frantzisko eskolan aritu zen lanean. 18 urte zituela, Maria Montessoriren ikastaro batera joan zen Bartzelonara. Euskarari dagokionez, 1922an hasi zen ikasten, eta, hasi orduko, hitzaldi bat eman zuen Donezteben, Euskaltzaindiaren ekitaldi batean. Nafarroako Emakume Abertzale Batzaren sorrera sustatu zuen. Ondorioz, 1936ko kolpe militarrek hankaz gora jarri zuen Fernandez Zabaletaren ibilbidea. Bilbora ihes egin zuen, lehendabizi, eta gero, Lapurdira. Gerra bukatuta Iruñera itzuli zen, baina lanik gabe utzi zuten, ikastetxetik kanpoko eskolak ematen hasi zen. Iruñeko Udalak 1958an eman zion lanera itzultzeko baimena, eta zeregin horretan aritu zen hil zen arte. Pastoralaren oinarrian Kike Diez de Ulzurrunen ikerketa dago. Idazlea Mikel Taberna izan da eta errejenta, Iñaki Iriart.

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



Gai nagusia

EAEko Hezkuntza Legearen aukerei begira

Euskal hezkuntza sistema propioa helburu izanik, EAEko Hezkuntza Legeak norabide horretan zer aukera eskaintzen dituen aztertu du **HIK HASI**k monografiko batean. Aukera horien garapena proposatu dute gaien adituak diren ikerlariek, tokian tokiko ereduak eta Europakoak ekarriz. Legeak dituen mugak ere kontuan izanik, marko berriaren abagunea baliatu nahi duten irakasleei eta hezkuntzan ardurak hartu dituzten udalei eta eragileei zuzendua dago *Hezkuntza Legea. Biharamunerako koordinatuak* liburua.



Arantxa Urbe, Ainhoa Azpirotz eta Xabier Sarasua dira, Josi Oiarbiderekin batera (argazkian ez dago), koordinatzaileak.

Hik Hasiren ustez, EAerako Hezkuntza Lege berri bat ateratzea ez zen aukera bat, ezinbesteko urratsa baizik, etorkizunari begira euskal hezkuntza propioaren bidetik heldu nahi baldin bazaio. Ikuspegi horretatik, Euskal Herri osorako hezkuntza sistema lortzeko bidean egindako urrats gisa baloratzen du.

Balorazio horretan gehiago sakondu nahi izan du eta horren emaitza da *EAEko Hezkuntza Legea. Biharamunerako koordinatuak* liburua. Abiapuntua **Hik Hasik** 2017an plazaratu zuen Hezkuntza Proposamena da. Dokumentu ireki hartan hezkuntza hobetzeko hamar gako proposatu ziren eta geroztik beste hamaika

Hezkuntza Proposamena

Hezkuntza Proposamena. Kalitatezko hezkuntza bermatzeko zoru pedagogiko eta etikoa: hezkuntza hobetzeko gakoak (2017) dokumentua urtebeteko hausnarketa partekatuaren emaitza izan zen, unibertsitateetako eta ikastetxeetako adituekin elkarlanean osatua eta hezkuntza komunitateko eragileekin kontrastatua. Proposamen irekia zen, gure herriko hezkuntza-egoera hobetu nahi duten guztiekin partekatzeko.

ekarpen egin dira Euskal Herri luze zabalean; azkenekoa Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako Hezkuntza Legea izan da, 17/2023 Legea, abenduaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntzarena.

Hik Hasik EAEko Hezkuntza Lege berria aztertu du eta Hezkuntza Proposamenean zehaztutako oinarrietatik abiatuta egin du, han mahaigaineratutako gakoak legean nola jaso diren ikusiz. “Denontzat eta denona izango den hezkuntza sistema publiko, bateratzailea, soziala eta inklusiboa erdiesteko bidean lege berriak zein aukera irekitzen dituen aztertu dugu, zer aurrerapauso dakartzan eta zer geratzen den egiteko, herri gisa eta haurrak erdigunean jarrita, geure buruari mugarik jarri gabe”, azaldu du Ainhoa Azpirotz **Hik Hasiko** eragiletza arduradunak eta liburuaren koordinatzaileak.

Legeak dakartzan aukera batzuk legearen garapenak ahalbidetuko ditu. Beste aukera batzuk errealitate bihurtzeko, ordea, hezkuntzaren eremutik at dauden hainbat lege ere aldatu beharko dira eta horrek denbora eskatuko du. Liburu honetan aukera horien garapen posibleak irudikatzeko saiakera egin da, batzuk legearen markoan eta beste batzuk legetik harago egin beharko direla jakitun. Beste zenbait gai edo esparru garatzeko, ordea, muga batzuk ikusi zaizkio legeari eta gai horietan mugak gainditzeko bideak arakatu beharko dira.

Legearen irakurketa egiteko begirada irekia

eduki du **Hik Hasik**, gertukoa zein urrunekoa, baina irekia. Tokian tokiko esperientziak eta ereduak jaso ditu, tartean Nafarroako eta Iparraldeko esperientzia esanguratsuak. “Legea Arabarako, Bizkairako eta Gipuzkoarako den arren, aurrera begira aztergai geratzen da Nafarroan eta Iparraldean zer eragin izan dezakeen eta herrialde desberdinetako ikastetxeen arteko lankidetzak eta proiektuak garatzeko zein bide ireki daitezkeen. Egiazki, ikastetxeen arteko harreman sarea eta elkarlana funtsezkoak baitira Euskal Herri osoko hezkuntza sistema osatzeko”, gehitu du Azpirotzek.

Denontzat eta denona izango den hezkuntza sistema erdiesteko bidean lege berriak zein aukera irekitzen dituen aztertu dugu

Hemengo ereduez gain, eredu gehiago badaudela ikustea da helburua

Ainhoa Azpirotz, **Hik Hasiko** eragiletza arduraduna eta liburuaren koordinatzailea

Begirada goratu eta Europara begira jarri da **Hik Hasi**. Europako hezkuntza sistema publikoetan dauden ereduak eman dira ezagutzera monografikoan, helburu xume eta argi batekin: “Hemengo ereduez gain, eredu gehiago badaudela ikusaraztea eta jabetzea erreferentzia izan daitezkeela eraikitzen ari garen eta denontzat eta denona izan beharko den hezkuntza sistemarako”.

Monografikoak lau atal ditu: *Gobernantza berri bat, Euskara euskal hezkuntzan, Autonomia eta Ikasleak eta irakasleak*. Atalak

osatzeko, gaia oso aztertuta duten adituen ekarpenak jaso dira, besteak beste: Huheziko Mariam Bilbatua, Olaia Jimenez, Jon Sarasua eta Karmele Perez; EHUKo Xabier Aierdi eta Maialen Oiartzun; Iñaki Iurrebaso; GEPS zentroko Xavier Bonal; Iratxe Retolaza; Gotzon Barandiaran eta Nafarroako 0-3 Plataformako Isa Irigibel eta Eider Garde. Liburua atalka irakurtzeko pentsatua dago.



2. Euskara euskal hezkuntzan

Hizkuntzari buruzko artikuluak legearen IV. tituluan landu dira, eta horrez gain, hizkuntzen trataerari buruzko aipamenak jaso dira zioetan eta bosgarren xedapen gehigarrian. Kontraesana sortu dute, zalantzan geratzen delako gaur egun martxan dauden hizkuntza ereduak lotutako eskubideak eta printzipioak mantentzeak ahalbidetzen ote duen lege honek planteatzen dituen helburuak betetzea edo horiek lortzeko bideak martxan jartzea.

Hik Hasik legeak ezartzen duen helburuan egin du azpimarra: ikasleek Derrigorrezko Hezkuntza amaitzean gutxienez B2 maila lortu behar dute bi hizkuntza ofizialetan. Horreta-

rako, legearen markoan ireki diren aukerak garatu eta bermatu behar dira: besteak beste, ikastetxeetan hizkuntza proiektuak garatzea; hainbat esku-hartze egitea eskolaz kanpo-ko jardueran, hezkuntza ez-formalean eta aisialdian esku-hartzeak egitea; irakasleen prestakuntza arduraz gauzatzea; eta euskal kulturaren transmisioa bermatzea. Horrek denak eskatzen du ondo zehaztea nolakoak izango diren ebaluazioa, esku-hartzeak, neurri zuzentzaileak, ondorioak —kolektiboak zein norbanakoak— formazioa... Adituek liburuan adierazi duten moduan, hor fin aritu beharko da, eta eragile guztien inplikazioa —eta adostasuna— beharko da.

1. Gobernantza berri bat

Hezkuntzak gertuagoko kolaboratzaileak eta solaskideak behar ditu: hurbilago dagoen tokiko administrazioa, ikuspegi hezitzailea duen herria, inplikatuago dauden familiak eta herritarrak, segregazioari aurre egingo dioten herri eta herritar inklusiboak, euskararen eta euskal kulturaren murgildutako autoktonoak zein herritar etorkinak... Eta horrek guztiak gobernatzeko kultura berri bat eskatzen du, partaideen pentsamenduetan, balioetan eta jarduteko moldeetan aldaketak egitea. Hezkuntza, hezkuntza komunitateko partaide guztien eguneroko politketan, praktketan eta bizimoduan integratzea, azken batean.

Hezkuntza komunitate zabalaren parte-hartzea sustatze aldera, EAEko Hezkuntza Legearen printzipioetan eta artikuluetan bideak

ireki dira udalen eta tokiko administrazioen esku-hartzea ahalbidetzeko: euskal hezkuntza sistemaren gobernantzako erakundetzat hartu dira udalak, hainbat eginkizun ezarri zaizkie eta udal eskola kontseiluak sortzeko aukerak zehaztu dira, besteak beste.

Eginkizun nagusia ikastetxeen eta herriko eragileen arteko elkarlana eta sinergiak bilatzea izango da, eta nola ez, gaur egungo segregazio egoerei aurre egiteko bideak bilatzea. Arlo horretan legeak urrats esanguratsuak dakartza.

Hik Hasiren liburuak dagoeneko bide horiek urratu dituzten hainbat esperientzia ekarri ditu: Errenteria-Orereta, Gasteiz, Zaldibia, Lesaka, Baztan, Durango, Bergara eta Eibar.



“Bergaran segregazioaren lantaldea sortu genuen 2022an eta identifikatutako bi erronkak eta zazpi lan ildoak garatzen ari gara”

Nagore Narbaiza, Bergarako Udaleko Gazteria, Hezkuntza eta Partaidetzako teknikaria



Gobernantza berri bat garatzeko, aurrerantzean hezkuntza mailako erabakiak udalei bizkar eman gabe hartu beharko lirateke, era koordinatuan eta elkarlanean



“Ikasleak euskaraz B2 maila izatera irits daitezen nahi baldin badugu, eskoletan eraginkorrakoak izan behar dugu hizkuntzen ikaskuntzan eta irakaskuntzan”

Karmele Perez Lizarralde
Huheziko irakaslea

3. Autonomia

Atal honetan **Hik Hasik** Europara begiratzeko gonbita egin du. Europako hezkuntza sistema publikoetan ikastetxeek duten kudeaketan duten autonomia maila aztertu da. Abiatu aurretik, *ikastetxe publiko* kontzeptuari buruzko gogoeta egin da, eta ondotik Europako argazki bat erakutsi da, ikastetxe publikoek funts publikoen kudeaketan, funts pribatuen kudeaketan eta ikastetxeko langileen hautaketan eta kontratazioan zer autonomia duten ikusteko.

“Ezagutu ditzagun inguruan ditugun ereduak, ez gaitezen mugatu Frantziako eta Espainiako estatuetako ereduak. Muga horiez gaindi eredu interesgarriak daude eta bideragarriak izan daitezke, denontzat eta denona izatea nahi dugun euskal hezkuntza sistema berria eraikitzen joan gaitezen”, dio Azpirozte. Errealitate berri bat irudikatzen iritsi da **Hik Hasi**, horra iristeko proposamen batzuk eginez.

Ibilbide horretan mugarri izango da legearen garapenak ekarriko duen Euskal Hezkuntza Zerbitzu Publikoa (EHZP). **Hik Hasik** jauzi kualitatibotzat hartzen du EHZPren sorrera, titularitate desberdinetako zentroak bat egiteko aukera eskaintzen duelako, EHZPn sartzeko betebeharrak agertzen direlako, eta zerbitzu horretan sartzeko baldintza guztiak betetzen dituzten ikastetxe guztiei % 100eko finantzaketa eskainiko zaielako. Hala ere, aurrerapausoa benetan esanguratsua izan dadin hiru baldintza bete beharko lirateke: ikastetxe guztiek eskubide eta betebeharrak berberak izatea arlo guztietan, Hezkuntza Sailaren, alderdi politikoaren eta hezkuntza-eragileen artean adostutako epean; kontrolak arautzea eta ondorioak zehaztea; eta titularitate publikoko eskolentzat hobekuntza plan integrala adostea eta mar-txan jartzea.



“Europako hezkuntza sistema publikoetan irakasleak hautatzeko erabiltzen den sistema hedatuena sistema irekia da, oposizioak oso herrialde gutxitan erabiltzen dira”

Maialen Oiartzun
EHUko ikerlaria



4. Ikasleak eta irakasleak

Hezkuntza Proposamenean ikasleei, irakasleei eta zuzendaritza-taldeei buruz esaten zenak isla izan du EAEko Hezkuntza Legean. Ikasleen ezaugarriak aintzat hartzea eta hezkuntzako profesionalen prestakuntzari behar duen tokia ematea azpimarratzen ziren, eta lege berriak jaso ditu.

Monografiko honetan gako batzuk aurkezten dira haur txikiak (0-3 urtekoak) zein nerabeak erdigunean egon daitezkeen eta etapa ho-

riek dituzten ezaugarri bereziengatik ikasleak kontuan hartuak izan daitezkeen.

Legeak dioen moduan, Haur Hezkuntza bi ziklotan banatzen da (0-3 eta 3-6) eta **Hik Hasik** oso garrantzitsutzat jotzen du hori hala jasotzea, errealitatean ziklo horren haustura gertatzen ari delako eta tentuz zaindu behar den zikloa delako.

Zuzendaritzatik zuzendaritza-taldeetara gertatzen ari den aldaketa ere esanguratsua da, eta zuzendari ahaldunduen beharra gero eta ozenago entzuten da. Ikastetxe ahaldunduak eta autonomia dutenak nahi baldin badira, ezinbestekoa da zuzendaritza taldeak ere ahaldunduta egotea.



Errealitatean 0-3 zikloa hausten ari da; legeak zikloa 0-3 dela berretsi du



Hezkuntza komunitatearen kide izateaz gain, hezkuntza proiektuaren motorra eta bermea da zuzendaritza taldea, eta, beraz, funtsezkoa

Hezitzaileei begira

Hik Hasik argi dauka legea ez dela helburu bat, aurrerapauso bat baizik. Legea abiapuntu hartuta, lanean jarraitu beharko da; besteak beste, sareen arteko konfrontazioa gainditzeko, eskola segregazioari aurre egiteko eta herritar euskaldun eleaniztunak sortzeko.

Liburuaren hartzaileak eta irakurleak hezitzaileak dira, lehenik eta behin, **Hik Hasi** hezkuntza komunitateari begira dagoelako. Legearen ondorioz etorriko den marko berrian aukerak bilatu nahi dituzten irakasleentzako, zuzendarientzako eta ikastetxeentzako monografikoa da. Baina hezkuntza ez denez irakasleen erantzukizuna soilik, hezkuntzan ardurak hartu dituzten udalei eta hezkuntza eragileei zuzenduta ere badago liburua.

Hik Hasik garbi dauka, lanean jarraitu beharko dela, onartu den legea abiapuntu hartuta, legearen aplikazioko prozeduretan eta egikaritzetan hobetu beharrekoak hobetzeko. Hezkuntza Proposamenaren talaiatik begiratu-ta, hainbat mugarri ikusten ditu:

- Legeak sareen arteko konfrontazioa eta lehia gainditzeko balio behar du, batetik hezkuntza zerbitzu publikotzat hartuz, eta bestetik bideak ipiniz guztiak baldintza

beretan eta eskakizun berekin jarduteko, betiere aniztasunari eutsiz eta gurasoei hezkuntzarekiko duten ardura eta erabakimena ebatsi gabe.

- Aztertu behar da legeak zenbateraino ahalbidetuko duen hezkuntza komunitarioa, tokiko kudeaketa, herri mailako sinergiak eta eragileak elkarrekiko konfiantzan lankidetzan aritzea.
- Legeak eskola segregazioari aurre egiten lagundu behar du.
- Legeak belaunaldi berriak euskaldun elea-niztun bilakatzeko balio behar du; bestela, ez- nahikotzat jo beharko dugu.
- Legeak eskolaren antolaketa parte-hartzailea izan dadin eragin behar du, eta hezkuntza proiektu indartsuak eta anitzak sustatu behar ditu.
- Legeak Euskal Herri osorako izan behar du lagungarri. Denontzat eta denona izango den hezkuntza sistema propioa eraikitzen laguntzeko eta eragile guztiak norabide berean arraun egitera bultzatzeko balio behar du.

Liburu hau bide horretan akuilu eta hausnarketarako tresna izan dadin nahi du **Hik Hasik**.



Legearen marko berrian
akuilu eta hausnarketarako
tresna izan nahi du liburua

ZURE NEURRIRA EGINDAKO PSIKOMOTRIZITATE- BLOKEAK ETA BABES-KOLTXONETAK FABRIKATZEN DITUGU

San Fermin Ikastolako psikomotrizitate gelan egindako argazkia.

ECP
ECPDESCANSO.COM

📞 948 142 980
✉ INFO@ECPDESCANSO.COM
📍 ARTIKAKO ERREPIDEA 34.
31013 ANTZOAIN (IRUÑA)



Gemma Riera

VIC UNIBERTSITATEKO IRAKASLEA

“ Geletan daukagun aniztasunari erantzuteko, ezin dugu gaur egungo planteamenduekin jarraitu

Ikaskuntza Kooperatiboaren ekarpen pedagogikoak inklusioaren norabidean mintegia eskaini zuen Gemma Riera Vic unibertsitateko irakasleak, Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean, Inkluni Iker-taldeak gonbidatuta. Aniztasuna artatzeko GRAC ikertaldeko kidea da, eta talde kohesioaren eta ikaskuntza kooperatiboaren lan-lerroan dihardu.



24

Zein da ikaskuntza kooperatiboaren jatorria?

Jatorria eskola inklusiboan dago. Baina zehaztu dezagun zer den eskola inklusiboa. Mundu guztiak hitz egiten du inklusioari buruz, baina gero batzuetan iritzi desberdinak aurki ditzakegu gaiari buruz. Susan Bray Steinbacken definizioan, hezkuntza inklusiboa prozesu bat da, eta prozesu horren bidez ikasle guztiei, desgaitasunengatik, arrazagatik edo bestelako edozein diferentziagatik bereizkeriarik egin gabe, gela arrunteko kide izaten jarraitzeko aukera ematen zaie, kideengandik eta kideekin ikasiz. Geletan daukagun aniztasunari erantzuteko, ezin dugu gaur egungo planteamenduekin jarraitu, ezin dugu gelan instrukzio prozesuekin jarraitu. Beste modu batzuk bilatu behar ditugu ikasle guztiengana iristeko. Irakaslea ezin da zatitu orain ikasle bati eta ondoren beste ikasle bati erantzuteko, irakasleok estrategiak bilatu behar ditugu gelako diferentzia indibidualei, banakoen diferentziei, erantzuteko. Estrategia horietako bat ikaskuntza kooperatiboa da, ikasle guztiengana iristeko baliabide bat da; hau da, gelako ikasle guztiek elkarrekin ikasteko bide bat da.

Aniztasuna aipatu duzu. Nola definituko zenuke aniztasuna ikaskuntza kooperatiboaren ikuspuntutik?

Banakoen diferentzien multzo moduan definituko dugu. Aniztasunari ikuspuntu desberdinetatik begira diezaiokegu. Aniztasuna hezkuntza premia bereziko ikasleei buruz aritzeko soilik erabiltzen baldin badugu, fokua ikasleengan jartzen ari gara. Eta hor gelditzen gara; izan ere, fokua ikaslearengan jartzen dugunean, gauza gutxi egin dezakegu ikaskuntza prozesuak hobetzeko. Aldiz, aniztasuna banakoen diferentzia multzoa dela ulertzen baldin badugu, fokua ikasle guztiengan jartzen dugu eta testuingurua aldatzen dugu. Eskola inklusiboak testuingurua aldatzen du. Testuingurua da egokitu behar dena, ikasleak ikasi ahal izateko eta parte hartu ahal izateko oztopoak testuinguruan baitaude. Testuingurua aldatzen baldin badugu, ikasleek parte har dezakete. Eskola inklusiboan, ikasleengana iristeko modua aldatzen badugu, guztiek par hartu dezakete. Ikasleari soilik begiratzen badiogu, zaila izango dute, testuingurua aldatu gabe, guztiek parte hartzea.



Aniztasuna banakoen diferentzia multzoa dela ulertzen baldin badugu, fokua ikasle guztiengan jartzen dugu eta testuingurua aldatzen dugu

Batzuetan parte hartu ezin duten ikasle horien azalean jartzen naiz. Nola sentitzen da ikaslea premia bereziko geletara bidaltzen dugunean?

Testuinguruan aldaketak egin behar ditugula esan duzu. Zer-nolako aldaketei buruz ari zara?

Aldaketak egiten hasi aurretik, gelako testuinguruan ikasleen parte-hartzea eta aurrerapena saihesten duten zer-nolako oztopoak dauden identifikatu behar dugu. Informazioaren irisgarritasunari loturiko oztopoak izan daitezke: autonomia mugatzen dutenak; espektatiba baxuak izatea ere ikasle horren ikaskuntza mugatzea da; antolakuntza zurrunka ikasle gutxi batzuen beharrei soilik erantzuten die, esate baterako: nik gelan metodologia zehatz bat erabiltzen badut, soilik hiruzpalau ikasleren premietara egokitzen naiz, baina ikasteko beste modu batzuk, beste motibazio batzuk eta beste interes batzuk dituzten ikasleak ez dira zurruntasun horretara egokitzen. Eta orduan zer gertatzen da? Nik esandakoa ulertzen ez duten ikasleak besteak molestatzen dituztela. Arazoa da nik gelan azaltzen dudana ez dela euren ikasteko modura egokitzen. Garrantzitsua da ikasgelan ikasle guztiengan iristeko metodologia desberdinak garatzea. Josep Maria Jarqueren hitzak ekarrita, ez dago erantzun berdinek guztientzako eta ez da bikaintasun bakarra existitzen; ikasle guztiak bikainak dira eta ikasle guztiengana iristeko gakoa testuingurua aldatzea da.

Testuingurua banakoen diferentzietara egokitzten baldin badugu, ikasle guztien presentzia, parte hartzea eta progresua lortuko ditugu. Hiru p-ak. Guri ez zaigu presentzia soilik interesatzen, kontua ez da ikasle guztiak gela berean egotea soilik, ikaskuntza kooperatiboari ikasle guztiek parte hartzea eta guztiek aurrerapenak egitea interesatzen zaio, hori da inklusioa.

Ikasle guztiak gelan elkarrekin egoteak

25

ikasle guzti-guztiak aberasten dituela diozu, ez soilik hezkuntza premia berezietako ikasleak. Nola?

Inklusioa ekitate eta justizia auzi bat da. Desgaitasun bat edukitzea ez da sententzia bat, desgaitasun bat daukan pertsonak, beste edonoren moduan, eskola arruntean egoteko eskubidea dauka edo, herrialde inklusiboez dioten moduan, “guztien eskolan” egoteko eskubidea dauka. Ikasle guzti-guztientzako beharrezkoa da gelan elkarrekin egotea, denok elkarrengandik ikasten baitugu. Gizartean bizitzen ikasteko, garrantzitsua da gelan ikasle guztiak elkarrekin egotea, ikaslea eskolatik ateratzen denean, kalean eta lan munduan, gizartea heterogeneoa baita.

Zer baliabide proposatzen dizkiezu irakasleei gelako aniztasunari erantzuteko?

Hiru osagai aipatuko dizkizuet aniztasunari erantzun ahal izateko. Batetik, ikaskuntza pertsonalizatua. Gure hezkuntza erantzuna, hau da, irakasten dugun guztia, ikasleen ezaugarrietara eta beharretara egokitu behar da. Ez bada egokitzen, ikasle horrek ez du ikasiko, eta, gainera, baten batek ondokoari enbarazu egingo dio, ez baitu ulertzen gelan gertatzen ari dena.



Desgaitasun bat edukitzea ez da sententzia bat, desgaitasun bat daukan pertsonak, beste edonoren moduan, eskola arruntean egoteko eskubidea dauka

Hori lortzeko ikasleen ezaugarrietara egokitu behar gara, ikasle bakoitzaren kapeluari begiratu behar diogu. Horrek gure ikasleak oso ongi ezagutzea eskatzen digu. Lana da bai, baina kalitatezko lana da. Irakasleok ikasleek aurrera egin dezaten nahi dugu, parte hartu dezaten nahi dugu, beraz, egokitzea eta pertsonalizatzea gure lana da. Ongi baliatutako denbora da, kalitatekoa, ikasleek ikasi egiten dutelako, ala nahiago dugu lan azkar bat egin eta ikasleek ezer ez ikastea?

Ikasle ezberdinei erantzuteko beste osagai garrantzitsu bat metodologia autonomoak indartzea izango litzateke. Esate baterako, txokoetako lana edo ikasle bakoitzak banaka lan egitea bultzatzen duten metodoak. Alde batetik oso garrantzitsua delako autonomia sustatzea, izan ere, hezkuntzaren oinarritzko helburuetako bat ikasleen garapen pertsonala lortzea baita, baina inportantea da, baita ere, autonomia sustatzen duten metodologiak

erabiltzea ikaslea pentsatzen eta lan egiten ari den bitartean, irakaslea laguntza behar duen beste ikasle batengana joan daitekeelako.

Beste osagaia ikasleak eurak dira. Irakasleok tresna oso garrantzitsu bat daukagu gelan eta ez dugu erabiltzen aniztasunari erantzuteko. Ikasleek euren ikaskideei lagundu diezaiekete, eta horrek euren ikasketa prozesuan laguntzen die, ezagutzak indartzen, transmititzen eta partekatzen ikasten dute —hau Vygotsky da, “interakzioz ikasten dugu”—. Are gehiago, taldean lan egiten ikasten dute, ez soilik baliabide moduan, eduki moduan baizik. Taldean lan egiteko konpetentzia ez da ahoz ikasten, praktikatzuz ikasten da.

Nola jakin genezake gure eskola, egunerokoan, inklusiboa den ala ez? Egokitza-penak eginda, zer ezaugarri izan behar ditugu kontuan benetan modu kooperatiboan jarduten dugula ziurtatzeko?

Hainbat ezaugarri izan behar ditugu kontuan: nola egiten dugu lan gela barruan? Nola egiten ditugu talde heterogeneoak? Talde horiek egiteko garaian, zer eduki beharko genuke kontuan, ikasleen motibazioak, interesak, gaitasunak, elkarri laguntzeko gaitasuna...? Proposatzen dugun ekintzaren egitura zein den kontuan eduki behar dugu; ikasleak nola antolatzen dira? Nola egiten dute lan? Nola hartzen dute parte?

Irakaskuntza eta ikaskuntza prozesua egituratzeko hainbat modu daude, guk hiru irakasle profil identifikatu ditugu: batetik, egitura indibidualista erabiltzen duen irakaslea; ikasle bakoitzak dagokiona egitea nahi du irakasle horrek, beste kideek egiten dutenari arretarik jarri gabe. Badago profil konpetitiboago bat: irakaslearen kontsigna honakoa da: “Lehenengo bukatzen duena lehendabizi aterako da atarira”, hau da, elkarren lehian jartzen ditu ikasleak. Egitura indibidualista ez dira ikasleen arteko harremanak existitzen; inor ez



da beste inori laguntzen ari. Egitura lehiakorretan, berriz, ikasleek ez diote elkarri laguntzen, besteari laguntzea norberarentzat kaltegarria baita. Eskoletan beste egitura bat ere ari da loratzen, eredu kooperatibotik lan egiten duen irakaslearena. Irakaslearen helburua ikasleek, bat eginda, elkarri laguntzea izango da.

Zer baldintza eskatzen ditu talde-lanak, ikaskuntza kooperatiboaren ikuspuntutik?

Lana benetan kooperatiboa dela esateko, bi baldintza bete behar dira. Batetik, mundu guztiak parte hartu behar du eta, bestetik, elkarrekintza aldiberekoa izan behar da. Batzuetan, denok parte hartzen dugu, baina ez dago aldibereko elkarrekintzarik, hau da, ez dago eztabaidarik, ez dago erabakimen bateraturik. Beraz, horri *semikooperatiboa* deituko genioke. Bi baldintzak betetzeko, ikaskuntza egituratu behar dugu. Spencer Kagan pedagogoarengandik hartu ditugu bi baldintza horiek. Berak honako hau dio: "Ekintza kooperatiboaren egitura ekintza edo lan bat egiteko unean ikasleek jarraitu behar dituzten eragiketen antolaketa zehatz bat da, parte hartze ekitatiboa ahalik eta gehien ziurtatzen duen egitura izango da, hain zuzen ere. Ikasle guztiek ekintzan modu ekitatiboan parte hartzeko aukera eta *obligazioa* eduki behar dute eta bigarrenik, aldi bereko elkarrekintzan jardungo dira: talde bateko ikasle guztiek euren ikuspuntua adierazteko, besteekin eztabaidatzeko eta elkarriketan jarduteko aukera eta *obligazioa* izan behar dute, akordio batera iritsi arte".

Horrez gain, Cohenek dio ikaskuntza kooperatiboa izan dadin, beharrezkoa dela ikasleen rola eta ardurak ezartzea, horrek taldearen funtzionamendua arautzen duelako. Rola eta ardurak banatuta baldin badaude, zehaztuta daukagu nork kontrolatu behar duen denbora, ahots tonua, nor izango den idazkaria... Horrek lana egituratzen laguntzen du.



Ikaskuntza kooperatiboa eskolako proiektu izan dadin, zuzendaritza aldeak konpromiso handia eduki behar du berrikuntza lerro horrekiko, eta lidertza hartu beharko du

Funtsezkoa deritzozu modu kooperatiboan eskola mailan lan egitea. Zergatik?

Ikaskuntza kooperatiboa eskolako proiektu izan dadin, zuzendaritza taldeak konpromiso handia eduki behar du berrikuntza lerro horrekiko, eta lidertza hartu beharko du. Nola? Antolakuntza-egitura aldatuz, beste modu batera antolatzeko eta planifikatzeko denborak eta espazioak eskainiz. Oso garrantzitsua da, baita ere, eskolan ikaskuntza kooperatiboko batzordea egotea eta hor ziklo bakoitzeko ordezkariak egotea. Irakasleek laguntza eta aholkularitza behar dute ikaskuntza kooperatiboan formatzen direnean.

Viceko unibertsitateko zure lan taldeak Aprender para cooperar /Aprender a cooperar programa garatu duzue ikaskuntza kooperatiboa gelan inplementatzeko.

Hainbat fasetan egituratu duzue prozesua. Zein dira?

Programa horretan taldean ikasten irakasteko hainbat ekintza bildu ditugu, eta horiek hiru esku-hartze eremu osagarritan banatzen ditugu. A esku-hartze eremua gelako taldea kohesio-natzera bideraturiko ekintzak lirateke, taldean lan egiteko prestatzeko, pixkanaka ikaskuntza komunitate txiki bihurtzeko. Taldea prestatu egin behar da.

Dinamika asko daude, baina gelan zerk huts egiten duen ikusi behar dugu lehendabizi. Arazoa izan daiteke ez dutela elkar ezagutzen, bada ezagutzarako dinamika asko daude. Arazoa baldin bada gure gelako taldean ez dagoela ikasleren batekiko errespeturik, zailtasunen bat duelako, adibidez, arazo horri aurre egiteko dinamikak baliatuko ditugu. Non huts egiten dugun identifikatzeko test bat daukagu prestatuta, eta horren arabera dinamikak egitea proposatzen dugu.

Behin gelako talde kohesioa lortuta, zein izango lirateke hurrengo urratsak?

A eremuko dinamikekin taldea kohesionaturik

dagoenean, eduki curricularrak modu kooperatiboan lantzen hasi gaitezke, egiturak erabiliz, *B eremuan*. Egiturak edukiak parte hartzea eta elkarrekintza sustatzen duten lantzeko baliabideak dira. Modu horien bidez, guztien parte hartzea eta interakzioa lantzen dugu.

Ondoren, *C eremuan*, talde lana eduki moduan lantzen ikasteko ekintzak bideratzen dira. Taldea autoerregulatzeko C eremura pasatzen gara, eremu horretako ekintzen egitekoa taldearen funtzionamendua autoerregulatzen laguntzea da, ardurak banatzen dira, arauak ezartzen dira eta konpromisoak jartzen ditugu; eta ebaluatu egiten da, bakoitzak bere burua ebaluatzen du, elkar ebaluatzen dute eta taldea ere ebaluatzen da. Oso garrantzitsua da eremu hori, gaitasun sozialak garatzen diren eremua baita. Eremu honretara iristen ez baldin bagara, ezin dugu ebaluatu taldean lan egiteko gaitasuna. Gaitasun horiek guztiak garatzeko tresna bat baliatu dezakegu: taldearen koadernoak.

Familiak aipatu dituzu. Seguraski gutxien ukitzen direnak dira ikaskuntza kooperatiboan. Nola egin daiteke lan familiarekin ikaskuntza kooperatiboaren baitan?

Familiarekin ere lan egin behar da, bereziki banakoen diferentziak onartzen ikasteko.

Familiaren arteko harremanak lantzea oso garrantzitsua da, aurreiritziak saihesteko; ezezagutzagatik aurreiritzi horiek baitira ondoren ikasleek bueltan eskolara ekartzen dituztenak. Berez ez da zaila gurasoekin modu kooperatiboan lan egitea. Haurrekin egiten ditugun dinamika batzuk baliatu ditzakegu familiarekin ere. Bilerak, adibidez, dinamiken eta egituren bidez egin ditzakegu. Lehenengo talde osoari azalpenak eman eta ondoren elkarriketarako hainbat taldetan jorratzea izan daiteke aukera bat. Edo ikaskuntza kooperatiboari buruzko saio bat egin dezakegu. Garrantzitsua da, baita ere, familiarekin jakin dezaten zergatik ari garen modu kooperatiboan lan egiten.

Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Udak nire familiarekin.

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

Kide batzuek baztertu nindutenean eta bullyinga esperimentatu nuen garaia.

03.

Nolako eskola amesten duzu?

Ikasle guztiak balioetsiak, errespetatuak eta babestuak sentitzen diren eskola.

04.

Zuretzat garrantzitsua den balore bat?

Zintzotasuna.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

La Escuela Extraordinaria liburu, Roger Sleeena.

hazi hezi

Haziera eta heziketa
aldizkaria

Eskuratu urtean
4 ale 20 eurotan

Harpidetu
eta izan
HikHasitarra

www.hikhasi.eus



Esperientzia

Burujabetza digitalaren bila

Burujabetza digitala eta ekonomia zirkularra uztartzen dituen elkarlana gauzatzen ari dira Seaska eta Elkartenet elkarteak. Egoera onean dauden ordenagailuak birgaitu, eta Seaskaren esku uzten ditu Elkartenetek.



» Harrobia ikastolako Mikroinformatika, sistemak eta sareak zikloko ikasleak ordenagailuak egokitzen.

Oraindik ere egoera onean dauden ordenagailu mordo bat erretiratzeko dira erakundeetatik, osasun zentroetatik edota ikastetxeetatik Euskal Autonomia Erkidegoan. Zaharkituak gelditu direlakoan, zaborretara botatzeko erabakia hartzen dute, baina, sarritan, aski da memoria handitzea edo diskoa aldatzea, ordenagailu horiek ongi funtziona dezaten. Horixe egiten du Elkartenet elkarteak: erretiratzeko diren ordenagailuak jaso, aztertu, egokitu eta behar dituztenei eskaini. Afrikako hainbat herrialdetara, Hego Amerikara, Nepalera... bidaltzen dituzte maiz ordenagailuak, baina hain urrunera joan gabe ere, badira Euskal Herrian bertan ordenagailuen beharra duten ikastetxeak, eta

horien artean dira Seaskako ikastolak.

Jabi Alfaro irakaslea eta Elkartenet elkartearen sortzaileak azaldu du nola egiten duten euren lana: "Baja emandako ekipamendu informatikoa jasotzen dugu, birgaitu egiten dugu, eta, berrerabiltzeko moduan dagoenean, beharra dutenei helarazten diogu. Urrunera joan gabe, Bilbon bertan badugu halako kasu bat: San Inazio auzoan, San Inazio BHI institutua eta San Inazio eskola ditugu elkarren ondoan. San Inazio eskolan ordenagailuak behar dituzte, eta, aldiz, San Inazio institutuan hainbat ordenagailuri baja eman zieten joan den ikasturtean, jada balio ez zutelakoan. Egokitu genituen eta, gaur egun, San Inazio



Hezkuntzan, aplikazio libreak behar ditugu. Nik ezin diet esan ikasleei korrika egiteko *Adidas* markako kirol oinetakoak janzteko. Kirol oinetakoak janzteko esango diet, baina ez marka zehatz batekoak janzteko. Gauza bera da

Jabi Alfaro, irakaslea eta Elkartenet elkartearen sortzailea

eskolako ikasleek erabiltzen dituzte. Halako egoerak bideratzeko borondaterik balego eta ekonomia zirkularra aintzat hartuko balitz, berehala konponduko lirateke. Ekonomia zirkularra posible baita". Ekonomia zirkularren aldeko aldarriaz gain, software librearen aldeko aldarria egiten du Alfaro: "Hezkuntzan, aplikazio libreak behar ditugu. Nik ezin diet esan ikasleei korrika egiteko *Adidas* markako kirol oinetakoak janzteko. Kirol oinetakoak janzteko esango diet, baina ez marka zehatz batekoak janzteko. Gauza bera da. Ez diet esango *Word* irekitzeko eta testua idazteko. Testu prozesadorea irekitzeko esango diet".

2019an sortu zen Elkartenet, Bilboko Miribilla auzoko Harrobia ikastolan. Software libre erabiltzen dute, eta hezkuntzarako Txikilinux sistema eragilea sortu zuten duela zenbait urte. Sistema eragile hori erabiltzen dute, hain zuzen ere, birgaitzen dituzten ordenagailu guztiek. "Ez dugu ezer deskubritu. Oinarria Linux Mint sistema eragilea da, eta hori moldatu dugu. Oinarrizko abileziak lantzeko aplikazioa sortu genuen, jolasaren bidez ikasteko. Hezkuntzarako software bilduma bat da, azken batean, eta irakasle bakoitzak duen beharraren arabera egokitzen joan gaitezke", dio Alfaro.

Eta horixe egin dute Seaskan: Txikilinux haien beharren arabera egokitu, eta Elkartenetekin batera Txikilinux Xilaba sortu.

Elkarlanaren hasiera

2020ko irailean hasi zen Seaskaren eta Elkarteneten arteko harremana. Eder Etxebarria Hezkuntzan Librezale elkarteko kidea eta Baionako Bernat Etxepare Lizeoko irakaslea da, eta haurra Donibane Lohizuneko ikastolan eskolatzean, hango informatika batzordean hasi zen lanean. "Ikastolako ordenagailuak zaharkiturik zeuden, eta hainbat programek ez zuten ongi funtzionatzten. Irtenbide baten bila hasi nintzen, eta Txikilinuxekin egin nuen



» Jabi Alfaro irakaslea Ondarroa BHIko ikasleei azalpenak ematen.

topo. Hari horri tiraka, Elkartenet aurkitu nuen ondoren. Jabi Alfaroekin harremanetan jarri nintzen, eta Donibane Lohizuneko ikastolako ordenagailu guztietan Txikilinux instalatu nahiko genukeela azaldu nion. Harrobia ikastolan ordenagailuak berreskuratzeko egiten duten lanaren berri eman zidan, eta ikastola batean egiten ari zirena beste batera ekartzea eta muga gainditzea oso ideia erakargarria iruditu zitzaigun".

Hortik abiatuta, eta Zuberoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean zituzten beharrak aintzat hartuta, Txikilinux Xilaba sortu zuten, Bidasoaz iparraldera erabiltzeko. "Moldaketa egitea ezinbestekoa zen: teklatuak desberdinak direnez, hori egokitu beharra zegoen, eta euskararik erabili ezin den ataletan gaztelaniaren orde frantsesa erabili behar genuen. Irakasleek eskatutako hainbat programa gehitu genizkion, eta, ondoren, iruditeria propioa jarri genion, Larhun mendiaren silueta gehituta. *Xilaba* izena jarri genion amaitzeko", azaldu du Etxebarriak.

Azpiegiturak hobetu beharra

Elkartenetek sinadura kanpaina jarri du abian, Eusko Jaurlaritzari ordenagailuak Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentroa (BPZ) eskatzeko. Izan ere, Bilboko Errekalde auzoko lokal txiki batean egiten dute lan gaur egun, eta azpiegitura hobe behar dute: "Euskal Autonomia Erkidegoan baja ematen zaion material informatikoa biltzeko protokoloa behar dugu. Berrerabilerari lehentasuna eman behar zaio eta horretarako beharrezkoa da Berrerabiltzeko Prestatzeko Zentroa sortzea", azpimarratu du Alfaro. Era berean, software librearen aldeko apustua eskatzen diote Jaurlaritzari: "Protokolo bat behar dugu. Herri libreak izateko software libre behar dugu, eta guk software libre publikoa nahi dugu. Gure erakundeek oinarrizko sistema eragileak garatzea nahi dugu, komunikazio digitala libre eta segurua izan dadin. Eta hori Linuxekin soilik egin dezakegu".

Donibane Lohizuneko ikastolan instalatu zuten Txikilinux Xilaba, eta oso ongi funtzionatu zuen. Etxebarriak Baionako Bernat Etxepare Lizeora eramateko apustua egin zuen orduan. Hamar bat urte dira Etxeparen Linux sistema eragilea erabiltzen dutela, baina Seaskak ordenagailuak behar ditu digitalizazio prozesua garatzeko, eta ez da lan erraza izaten ordenagailuak lortzea. Elkartenetek lan hori egin zezakeela pentsatu zuen Etxebarriak: “Handik hiru hilabetera 30 bat ordenagailu ekarri zizkiguten, oso prezio onean”. Besteak beste, Basurtuko ospitaleko laborategian zeuden hainbat ordenagailu Baionako Bernat Etxepare Lizeoan daude orain.

Linuxen erabilera ez da berria Iparraldean, baina Txikilinux Xilaba sistema eragilea pixkanaka zabaltzen ari da ikastoletan. Urruñako eta Donibane Garaziko ikastoletan berriki hasi dira Txikilinux sistemarekin lanean. “Perretxikoen antzera gabiltza, eta etorkizunera begira guztia bateratu nahiko genuke. Hurrei erakutsi nahi diegu ekosistema digital alternatiboak daudela, Euskal Herrian eginak, euskaraz, libreak, pribatutasunean lan egiteko aukera ematen dutenak eta gure tresnen bizitza luzatzen dutenak”, dio Etxebarriak.

Baionatik Bilbora, eta alderantziz

Aurten, Arizmendi ikastolakoekin egin dute trukea Bilboko Harrobia ikastolako ikasleek, baina lehen trukea Baionako Bernat Etxepare lizeoko ikasleekin egin zuten iaz.

Etxepare Lizeoko Lanbide Heziketako Merkataritza zikloko irakaslea da Etxebarria, eta ekintzailatza eta ekonomia zirkularra lantzeko proiekturen bat martxan jartzea erabaki zuten. Modu horretan, bi ikaslek Ilargikoop izeneko kooperatiba sortu zuten. Era berean, Harrobia ikastolan, Erdi Mailako Informatika Zikloa dute, eta ikasleek Linux distribuzioak sortzen eta ordenagailuak berreskuratzen ikasten dute, besteak beste. Bi ikastetxeak harremanetan jarri ziren, eta trukea egitea erabaki zuten. Harrobia ikastolan Elkartenetek berreskuratzen dituen ordenagailuak Seaskari eskaintzea zen Ilargikoop kooperatibaren helburua: “Proiektu apala izan zen. Elkartenetek berreskuratutako hamar ordenagailu eskuratu zituzten, eta ikasleen egitekoa horiek saltzea eta horren bidez etekin ekonomikoa ateratzea zen. Gure ikasleak bi egunez joan ziren Bilbora Harrobia ikastola eta hango errealitatea ezagutzera eta, ondoren, Harrobiako ikasleak etorri ziren Baionara beste bi egunez. Lizeoa ezagutu zuten, eta hemengo errealitatera hurbildu ziren”. Herri Urratsen eman



Hurrei erakutsi nahi diegu ekosistema digital alternatiboak daudela, Euskal Herrian eginak, euskaraz, libreak, pribatutasunean lan egiteko aukera ematen dutenak eta gure tresnen bizitza luzatzen dutenak

**Eder Etxebarria,
Bernat Etxepare
Lizeoko irakaslea**

zioten amaiera proiektuari, Elkartenetek eta Txikilinuxek zuten txokoan. Bertaratu zen orori eman zizkioten proiektuaren nondik norakoei buruzko azalpenak.

Trukea amaitu zen, baina ez, ordea, Seaskaren eta Elkarteneten arteko elkarlana. Donibane Lohizuneko ikastolarako zerbitzaria prestatzen ari dira orain Elkarteneteko kideak, Etxebarriak azaldu duenez: “Guraso bati esker zerbitzaria lortu dugu, eta Elkarteneko kideak hori egokitzen ari dira. Ikastolan, ez dugu ordenagailuetan disko arinak instalatzeko dirurik, baina oso fite doan zuntz optikoa dugu. Behin zerbitzaria jarrita, ikastoletako ordenagailu guztiek zerbitzaritik iristen zaien irudiarekin funtzionatuko dute. Orain, lanean ari gara kolegioen eta lizeoaren zerbitzaria bera izan

dadin. Denok sistema berarekin lan egin nahi dugu, enpresa euskaldun batek kudeatuko lukeen zerbitzari batekin. Bi urte barru sistema berarekin lanean aritzea aurreikusten dugu”, azaldu du Etxebarriak.

Burujabetza digitala dute helburu nagusi, Etxebarriak azaldu duenez: “Burujabetza digitala dugu xede, bai eta digitalizazioaren erabilera arduratsua eta kritikoa ere. Digitalizazioa ez da neutroa, eta gauzak egiteko beste modu bat badagoela erakutsi nahi dugu. Irakasleok eta ikasleok tresna pila bat dugu gaur egun software librearekin lan egiteko, baina ez dago irizpide kritikorik. Mundua digitala baldin bada, zer-nolako mundu digitala nahi dugun erabaki beharko dugu. Izan gaitezen gure ideien jabe”.



» Eder Etxebarria irakaslea Bernat Etxepare Lizeoko ikasleekin ekonomia zirkularrari buruzko saio batean.



Burujabetza digitala dugu xede, bai eta digitalizazioaren erabilera arduratsua eta kritikoa ere

**Eder Etxebarria,
Bernat Etxepare
Lizeoko irakaslea**

Kulturartekotasuna eta iritsi berri diren ikasleen zailtasunak. Irakasleen begirada

Ekarpena

Berandu eskolatzen diren ikasle immigratuek, iritsi bezain laster, eskolako hizkuntza ikasteari ekin behar diote. Baina ez da hori egin behar duten ahalegin bakarra. Harrera gizartean izaten dituzten zailtasunen gainean hausnartu dute ikasle horiekin diharduten hainbat irakaslek, Mondragon Unibertsitateko Huhezi Fakultatearen *Ikasle iritsi berrien murgilketan espezializatzeko ikastaroaren* harira. Ikastaroko erraztaile izan diren irakasleek hainbat ondorio jaso dituzte.



Sara Jimenez de Aberasturi, Ane Urizar eta Amelia Barquin
Huheziko ikerlariak eta irakasleak

Euskal hezkuntza sisteman berandu eskolatzen diren ikasle immigratu berrien kopurua handituz doa azken hamarkadetan, beste herrialde batzuetatik etorritako immigrazioak gora egin ahala. Iritsi bezain laster, eskolako hizkuntza (edo hizkuntzak) ikasteari ekin behar diote, eta denbora eta ahalegina eskatzen duen prozesu batean murgiltzen dira, bereziki 10 urte baino gehiagorekin iristen direnean. Prozesu hori funtsezkoa da ikasleentzat, eskolako hizkuntza jakitea beharrezkoa baita, bai eskolako ibilbidea egiteko eta bai gizartean egokitzeko eta desabantailan ez egoteko ere. Euskal gizarterako eta euskara biziberritzeko prozesurako ere garrantzi handikoa da herritar berri horiek euskara ikastea.

Baina, atzeritik etorritako ikasleen kasuan, ez da hori egin behar duten ahalegin bakarra. Harrera gizartean zailtasun batzuk izaten dituzte, eta haien bizitzan eta ikaste prozesuan eragiten dute horiek. Zein dira, nagusiki? Irakasle talde batek gogoeta egin du beren ikasleen egoeraren gainean, eta, artikulua honetan, irakasle horien ekarpenak jasoko ditugu.

Euskal Autonomia Erkidegoko 22 ikastetxe-tako 32 irakaslek egin dute gogoeta hori. Horietatik 27 Eusle programako irakasleak izan dira, eta 5 irakasle, HIPI programakoak (horiek ere Eusle programan engaiatuta). 22 ikastetxe horietatik, 7 ikastetxe Araban daude; 4, Bizkaian, eta 11, Gipuzkoan. Partaide guztiak emakumeak dira, bat izan ezik. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, 2018-2019 ikasturtean, hizkuntzan murgiltzeko Eusle programa jarri zuen abian, Lehen Hezkuntzako 4., 5. eta 6. mailetan eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetan, hezkuntza sistemara iritsi berri ziren ikasleei eskolako hizkuntza (euskara) eskuratzeko prozesuan laguntzeko. Irakasleak astean 10 eta 12 ordu bitartean irteten dira erreferentziazko ikasgelatik, Eusle ikasgelara joateko, bi ikasturtez. Eusle taldeak txikiak dira, eta irakasleen eta ikasleen arteko harremana hurbila da. Gainera, programaren gakoetako bat da irakasleek ikasleen ongizate sozioemozionalean laguntzea.

Testu honetara ekarriko ditugun gogoetak Eusle programako irakasle horiek prestakuntza prozesu baten barruan egin dituzte. Pro-

grama horrek *Ikasle iritsi berrien murgilketan espezializatzeko ikastaroa* zuen izenburu; bost hilabeteko iraupena zuen, eta Mondragon Unibertsitateko Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultatean (Huhezi) egin zen, online, 2021-2022 ikasturtean. Artikulu honen egileak erraztaileak izan ziren prozesu horretan, eta, zehazki, kulturarteko hezkuntzaren arloan.

Kulturarteko hezkuntzaz ari garenean, baina, beharrezkoa da arreta jartzea alderdi kulturaletatik harago doazen zenbait alderditan ere. Izan ere, beste herrialde batzuetatik datozen ikasleek bizi dituzten egoera zailek lotura estua dute dimentsio sozioekonomikoarekin, adibidez, eta desabantaila sozioekonomikoan egoteagatik jasaten dituzten zailtasunek eragina dute haien ongizatean eta ikaskuntza prozesuan. Zailtasun horiei erreparatu diete, besteak beste, aipatutako irakasleek. Zailtasunok, gainera, ez daude beti irakasle guztien begi bistan, eta denen arreta merezi dute, ez soilik irakasleena; premiazkoa da hezkuntzako eta gizarteko beste eragileen arreta ere.

Testu honetan, ezin izango ditugu jaso irakasleek aipatutako zailtasun guztiak, eta, hurren-

go lerroetan, arlo jakin batzuetan zentratuko gara nagusiki: zailtasun sozioekonomikoetan, aisialdiari lotutako zailtasunetan, ondoez emozionalean eta eskakizun akademiko altuetan. Irakasleen adierazpen batzuk ekarriko ditugu, azalpenak argitzeko asmoz.

Familien zailtasun ekonomikoak

Familien zailtasun ekonomikoak maiz ageri dira irakasleen adierazpenetan. Eusle programako ikasleak duela gutxi iritsitako familia etorkinen seme-alabak dira, eta familia horietako asko desabantaila ekonomikoan daude. Egoera horrek irakasleen eguneroko bizitzan dituen ondorioen jakitun dira irakasleak.

- Gure eskolako ikasle gehienek kasuan ere, familiek egoera zailak bizi dituzte benetan. Batzuk gela batean bizi dira; langabezian daude; askok janari bankuei esker daukate jateko zerbait; ordu asko pasatzen dituzte etxean (asteburuetan), inora joateko aukerarik ez daukatelako...

Baldintza material eskasek beste ondorio batzuk ere badituzte. Itxurak pisu handia du ikasle hauen adinean. Zenbait ikasle desabantailan sentitzen dira, eta horrek eragina du haien autoestimuan. Gainera, ikasle batzuk lotsatu egiten dira beren egoeraz, eta, batzuetan, ezkutatu egiten dituzte beren bizitzako alderdi batzuk, eta beste batzuk asmatu, itxurak egiteko ikaskideen aurrean.

Familia asko eskolan inplikatzeko badira ere, beste batzuen parte hartzea txikia dela diote, besteak beste, familien mugikortasuna handia delako. Arrazoi ekonomikoengatik familiak herriz edo hiriz aldatzeak eragina du eskolako inplikazio txikian eta euskara ikasteari ematen dioten garrantzi eskasean.

- Gure eskoletan, etengabeak dira irakasleen eta familien joan-etorriak. Mugimendu handiko



herrietan bizi gara, eta eragin handia du horrek familiek eskolari buruz duten irudian. Aste honetan, aita batek honako esaldi hauek esan ditu bileran (gaztelaniaz): "Nire semeak ez du euskararik behar, nahikoa du gaztelaniarekin eta ingelesarekin; gainera, laster Frantziara joango gara". Irakasteko eta ikasteko prozesuaren ezinbesteko zutabeak dira familiak, eta konfiantza eta segurtasuna eskaini behar dizkiegu, eskolako partaide senti daitezen elkarlanean arituz; baina zer egin dezakegu horrelako jarreraren aurrean? Nola inplikatu ditugu eskolan eta beren seme-alaben heziketan, prest ez badaude?

Aisialdiari lotutako zailtasunak

Irakasleek behin baino gehiagotan aipatzen dute irakasleen aisialdia, eta agerian uzten dute gizarte arrakala dagoela aisialdiko jardueretan. Badakite baliabide ekonomiko urriak dituzten familietako haurrek eskolaz kanpoko denbora etxean igarotzen dutela eta pantailetan eta gailu elektronikoetan zentratzen dela haien entretenimendua. Kalera ateratzen badira, familiarekin erosketak egitera supermerkatu joateko izaten da. Batzuetan, gazteek ez dute ingurua ezagutzen: herrian edo

auzoan dauden dendak, naturaguneak, etab. Irakasleek premia sentitzen dute ikasle horiek etxetik irteten daitezen. Bestalde, zaila egiten zaie ikasgelan desberdinkeria kudeatzea.

- Batzuetan, arrazoi desberdintasun ekonomikoak da, bai. Doako jardura gutxi daude gaur egun. Baina badira doakoak diren jarduerak ere, eta izugarri kostatzen zaie horietan parte hartzea. Hiriko Gaztelekuan, adibidez, gazteen-tzako jardura asko antolatzen dira, doakoak guztiak, eta gure ikastetxeko ikasleak hara eramaten ditugu tutoretza ordu batean, ezagutu, eta hango baliabideak erabil ditzaten... Baina, arrazoi batzuk direla medio, ikasleei gero eta gehiago kostatzen zaie aisialdian etxetik irtetea! Eta ez etorri berriak diren ikasleei soilik! Erabat txoratuta daude online jolas horiekin, mutilak bereziki!

-Inauteriak baino egun bat lehenago, hauxe esan zidan ikasle batek (gaztelaniaz): "Oso gustura etorriko nintzateke, baina ezin dut, ez baitaukat mozorrorik, eta ez dut lotsarik pasatu nahi". Hori dela eta, ez zen etorri, eta, hurrengo egunean, oso triste etorri zen eskolara. Errutinak egiterakoan, beste ikasleek inauterietan egindakoaz hitz egin nahi zuten, baina, ikasle



Arrazoi ekonomikoengatik
famiak herriz edo hiriz aldatzeak
eragina du eskolako inplikazio
txikian eta euskara ikasteari
ematen dioten garrantzi eskasean

horren egoera eta tristura ikusita, zer da ego-kiena? Ikasleekin hitz egitea, egoera normalizatu, edo gaia aldatzea? Oso zaila da desberdintasun sozioekonomiko horiek ongi kudeatzea, tartean umeen sentimenduak baitaude.

Irakasleek diotenez, ohikoa da astelehenean elkarriketa bat proposatzea asteburuan egin-dako jardueri buruz, ikasleen hizketa errazteko. Irakasleek ikusten dute, ordea, askotan ikasleek esaten dutela ez dutela ezer kontatzeke. Era berean, oporren gaiak, oparien gaiak eta horrelakoek ere arazoak sortu ditzakete, eta irakasleen sentsibilitatea eskatzen dute:

- Ikasleek, batez ere adinean gora doazen heinean, gero eta kontzientzia handiagoa dute, eta ikasgelan bertan dauden desberdintasunez konturatzen dira. Zaila iruditzen zait hori kudeatzea. Seguru nago gainerako irakasleei ere gertatzen zaiela: errutinak lantzen direnean, oporrei buruz hitz egiten dugunean, asteburuko planak azaleratzen dituztenean edo opariak aipatzen dituztenean.

Aisialdiaren erabileran, generoaren aldagaia agertzen da. Ikasle batzuentzat, beste desabantaila bat da: neska batzuk behartuta daude familian etxeko lanak egitera, eta askatasun

mugatua dute etxetik irteteko, bikotekidea izateko edo harekin egoteko...

- Batez ere ikasle marokiarrek (neskek, hain zuzen ere), denbora libre gehiena etxean pasatzen dute, nahiz eta batzuetan lagunekin kalera joan. Badakigu etxe barruan erantzukizun asko dituztela, etxeko lanak egitea, neba-arrebak zaintzea, eskolako lanak egitea... Baina, batzuetan, badakit gurasoek nahiago dutela neskak etxean geratzea. Hori, zorionez, ez da egoera guztietan gertatzen; baina izan ditugu horrelako kasuak, eta, horrelakoetan, oso zaila egiten zait familiarekin eta ikasleekin esku hartze egoki bat ezartzea.

Ondoez emozionala

Ikasle batzuen egoera pertsonalak gogorrak dira. Zenbait irakaslek diote heldu berri diren gazte batzuentzat zaila dela egoera berrira moldatzea. Auzora egokitu behar dute; familiarren zati bat jatorrizko herrialdean utzi dute, eta aldaketak gertatzen dira familiarren egituran; paperak lortzeko kezka daukate; egoera zailean bizi behar dute; asko lagundu behar dute etxeko lanetan... Ez kasu guztietan eta ez modu berean, noski, baina, maiz, horrelako baldintzak gainjartzen zaizkie.

Gazte horiek aipatutako oztzopoei aurre egin behar diete nerabezaroan edo nerabezarotik gertu daudela, berez ere zailtasunak dituen etapa batean, hain zuzen. Gizarteko beste neska-mutil askok adin horretan ezagutzen ez dituzten kezkak eta oztzopak dituzte.

- Baldintza sozioekonomikoak direla medio, ikasleek, askotan, eurei ez dagozkien ardurak hartzen dituzte, gurasoek etxetik kanpo lanean ordu asko pasatu behar dituztelako: etxeko lanak egin, janaria prestatu, neba-arrebak zaindu, eskolara eraman, gaixorik daudenean haiekin geratu... Horrez gain, badaude gurasoei laguntzeko egiten dituzten beste hainbat jar-



duera ere, itzultzaile lanak egitea medikuaren kontsultan, esaterako (batez ere hizkuntza arazo denean), edo izapide burokratikoak egitea. Horrelakoetan, ikasleak ez dira eskolara joaten. Gainera, badakite etxean arazoak daudela, eta eskolako oztzopoei ere aurre egin behar dietela gehitzen badiogu horri (hizkuntza berri bat ikasteari, euren ikasketa prozesuan arrakasta izateari, integrazioari...), bizkarrean daramaten zama itzela dela ohartuko gara, eta, kasu askotan, eztanda egiten dute emozionalki, eta antsietatea, depresioa eta horrelako gaixotasunak agertzen dira.

- Askotan entzun ditut nire ikasleak paperen inguruan hizketan, ea nik baditudan, ea zenbat urtez egon behar duten hemen paperak lortzeko, gauzak gaizki egiten ari diren beldurrez... Horrek tristatu egiten nau.

Ikasgelan, ikasle batzuek ez dute ondoez emozionalik adierazten, izan ala ez; baina beste batzuk triste, atsekabetuta, apatiko... agertzen dira, edo jarrera oldarkorrak dituzte, eta jarrera horiek eragina dute ikasgelako giroan, eta zail-

du egiten dute ikasgelan gainerako ikasleen eginkizuna. Genero aldagaiak ere eragina izan dezake, honako aipu honetan ikus daitekeen bezela:

- Batzuek oso jarrera ona dute, bai akademiko-ki eta bai euskararekin; asko saiatzen dira; motibatuta daude, eta aurrera doaz, nahiz eta ez izan oso argi emozionalki nola sentitzen diren. Beste batzuek, berriz, ez dute ikasteko interesik erakusten, eta, askotan, ikasgelako martxa oztzopatzeko saiatzen dira, beste ikaskideekin sartuz. Sozialki, emozionalki eta motibazio aldetik, ez daude batere ondo, eta beren gabezia guztiak islatzen dituzte, gainerako ikaskideekin sartuz. Kontua da, neskak helduagoak diren neurrian, mutilak baino hobeto ari direla egokitzen, eta akademikoki helburuak betetzen ari direla.

Zaila izaten da irakasleentzat horrelako egoerak kudeatzea, ikasleen egonezinen arazoak ez baitaude ikastetxean, eskolatik at dituzten bizipenetan baizik. "Eusle programako irakasleek lana euskararen irakaskuntzatik harago



Ikasle batzuen egoera pertsonalak gogorrak dira. Zenbait irakaslek diote heldu berri diren gazte batzuentzat zaila dela egoera berrira moldatzea



doa", azaldu du irakasle batek. Irakasleak ulerkorak dira, eta enpatiaz eta adeitasunez tratatzen dituzte ikasleak; baina diote dena ez dagoela euren esku eta ez daukatela konponbiderik kanpotik datozen zailtasunei erantzuteko. Horrez gain, diote familiek ere ezin dietela beti beren haurrei emozionalki lagundu, bestelako arazoei aurre egiten ari direlako.

- Gurasoek ez dute beti behar adinako energia-rik segurtasun gabezia horiek konpentsatzeko: egunerokotasunak, lanak, bizirik irauteak... seme-alaben esparru emozionalari lekua kentzen diote, eta ez da harritzekoa ikasleak triste, bakarrik eta babesgabe sentitzea.

Ikasleen ondoezaren aurrean, irakasleek lehentasuna ematen diete tratu gizatiarrari eta enpatikoari:

- Nire kezka hau da: nola egin dezaket aurrera akademikoki, motibazio aldetik, emozionalki eta sozialki gaizki dauden ikasleekin? Ez ote da garrantzitsuagoa alderdi horiek (emozionalak, sozialak eta motibazioa) konpontzen saiatzea, akademikoki aurrera egin ahal izateko? Eguneror saiatzen naiz goxo eta enpatiaz elkarri eragiten, unean uneko mugak jartzen eta jarduna

bideratzen, baina zaila egiten zait ikasle batzuk beren apatiatik ateratzea.

Eskakizun akademikoak

Irakasleek badakite zenbait ikaslek, egunero izaten dituzten zailtasunez gain, eskolak ezartzen dizkien eskakizunak eta presio gehigarriak ere badituztela. Horrek kezka sortzen die, eta dilema larriak planteatzen dizkie: exijentzia maila altuari eustea komeni da, ala hobe da ikasle batzuei eskatzen zaiena egokitzea edo jaistea? Zer da hobe? Zer da bidezkoagoa? Irakasleek beren ezinegona adierazi dute, ikasleen sufrimenduaren isla gisa.

- Hona heltzeko egiten ari diren esfortzua eta lana (arazo pertsonalak kudeatzeaz gain) ez ditugu berdin ikusten hezitzaile guztioi, eta gainerako ikasleei eskatzen diegun ahalegin bera eskatzen diegu. Bidezkoa da hori? Ez al da gehiegi, ume zein nerabe batentzat? Ikasle horiekin daukagun eskakizun maila ez al da altuegia? [...] Zaila egiten zait orekari eustea, ikasgelan daukadan aniztasuna kudeatzen.

- Batzuetan, ikaslea etorri berria denean, iruditzen zait gauzak polikiago edo kontu handia-

goz egiten ditugula, haien eskolatze prozesuan laguntzeko eta bidea arinago egiteko, eta ahal dugun gozoez jarduten dugula. Baina, denbora pasa ahala eta batzuetan eskolen eskaerak, curriculumaren eskakizunek edota ditugun baliabideek (ordu kopurua, emaitzak lortu beharra, norberak dituen askotariko beharrak ase ezina...) egoera hori konplexuago bihurtzen dute.

Ikusi dugu irakasleek ahalegina egiten dutela ikasleek kanpoan bizi dituzten egoeren ondorio txarrak arintzeko eskolan eta, horrela, haien eskola ibilbidea errazteko. Baina premiazko baldintza batzuk falta zaizkie, egiturazko arazoak daudelako. Baliabide falta eta irakasle taldearen mugikortasuna aipatu dira nagusiki, nahiz eta gehien agertzen den alderdia irakasleen denbora eskasia den. Bestalde, irakasle gutxi batzuen jarrera desegokiari ere egiten zaio erreferentzia:

- Tamalez, gure ikastetxe gehienetan, ikastur-etik ikasturtera, izugarritzko irakasle aldaketak izaten dira klaustroetan; ikastetxeetako irakasle taldeak oso urruti daude finkoak izatetik. Gurean, finkoak ez gara % 50era iristen; izugarritzko aldaketak daude urtetik urtera; inork gutxi du zuzendaritza karguak hartzeko borondatea edota gogoia... [...] Eta ikasle etorri berriak zama gisa bizi dituen irakaslea gehitzen badiogu aurretik esandako guztiari... Ez dut ezkorra izan nahi, baina, egiten ari garen bidearekin itxaropentsu banago ere, uste dut bide luzea geratzen zaigula oraindik.

Amaitzeko

Egunerokoan ikasleek bizi dituzten egoera zailak eta dituzten desabantaila materialei erantzutea eskolatik harago doan erronka soziala da. Baina ikasleek emozioak, egonezinak, ilusioak, kezak... ere ekartzen dituzte eskolara, eta irakasleek ekitatearen aldeko estrategia ugari jar ditzakete abian. Gure azterlaneko

irakasleak kontzientziatuta daude, eta badakite beren rola ez dagoela hezkuntzarekin soilik lotuta, hezkuntzarekin eta gizartearekin baizik.

Ez da ahaztu behar irakasleen egoera emozionala ere: irakasleek, artikulu honetan landu ditugun gaiak azaltzean, kezka, sufrimendua, tristura, haserrea, ezintasuna... azaleratzen dituzte. Ezinegon horren arrazoiatariko bat lotuta dago ikasleen beharrei behar bezala erantzuteko denbora eta baliabide nahikorik ez izatearekin. Beraz, irakasleen kasuan ere, beharrezkotzat jotzen dugu arreta norberaren zaintzan eta elkarren zaintzan jartzea, hezkuntza administrazioaren aurrean ikasle horiei modu duinean erantzuteko behar diren baliabideak aldarrikatzeari utzi gabe. Aldi berean, nabarmenak dira irakasleek adierazi dituzten erantzukizuna, inplikazioa eta ekitatearen aldeko jarrera.

Esan dezagun, bestalde, testu honetan aipatutako zailtasun batzuek ez dutela atzeritar jatorriko ikasleengan soilik eragiten; jatorri autoktonoko hainbat ikasle desabantaila sozialean daude, eta haientzat ere baliagarriak dira hemen jasotako gogoetak.

Azken lerro hauek balio bezate azterlan honetako irakasleei bihotzez eskerrak emateko, analisiak, gogoetak eta esperientziak guri helarazteko izan duten eskuzabaltasunagatik.

Ahalduntze eskola

Estetikaren diktaduratik ihesi

Publizitateak eta sare sozialek edertasun kanon jakin bat bultzatzen dute, eta gero eta handiagoa da pertsonen irudia eredu horren arabera desitxuratzeko joera. Garrantzitsua da haurrei eta gazteei hori guztia identifikatzeko tresnak eskaintzea.



Nazareth Holgado Freixo
Kontsumobideko plangintza, azterketa, informazio eta prestakuntzako arduraduna



Kontsumorako prestakuntza da Kontsumobide Kontsumoko Euskal Institutuaren eginkizun nagusietako bat, kontsumitzaileak modu kontzientean, arduratsuan eta

jasangarrian aritu egiteko daitezten. Eskoletan, gorputzaren gurtzatik eta estetikaren diktaduratik ihes egiteko gakoak eskaintzen dituzte, eta saio horien berri eman du Nazareth Holgado.

Publizitateak geure buruaz dugun irudian eragiten du, eta edertasun kanon zehatzak bultzatzen ditu. Horren gaineko hausnarke-ta bultzatu nahi al duzue?

Bai. Publizitateak presentzia handia du gure bizitzan, hainbat kanaletatik publiko guztiengana iristen da, eta, erosi behar dugunaz gain, nolakoak izan behar dugun eta nola jokatu behar dugun esaten digu. Oso ohikoa da publizitatean irudi sexualizatuak eta estereotipo estetikoak erabiltzea, eta gure helburua kontsumitzaileak horiek identifikatzeko eta haien eraginetik babesteko tresna propioak izatea da.

Etengabe jasotzen ditugu publizitate mezuak. Zein dira publizitateari ikuspegi kritikotik begiratzeko gakoak?

Bi ideia azpimarratzen saiatzen gara: lehenik, pertsona bakoitza bakarra dela eta, bigarrenik, publizitatearen estereotipoek pertsonak objektu bihurtzen dituztela.

Mezu eta irudi horietan jasotzen duguna manipulatu dago maiz. Horren jakitun al dira haurrak eta gazteak?

Ez. Eta oso kaltegarria izan daiteke haien autoestimua eragindako eta osasun mentalaren zat. Jarduera espezifiko bat dugu horretaz konturatu daitezten: neska baten argazkiak argitaratzen duten arte jasaten duen hobekuntza prozesu osoa ikusten dugu. Hasierako eta amaierako argazkiek duten antza anekdotikoa da. Manipulazio hori ez da publizitatean soilik gertatzen, ordea; sare sozialek ere, gero eta gehiago erabiltzen dira iragazkiak.

Publizitate mezuak aztertzeko tresnak eskaintzen al dizkiezue ikasleei?

Publizitatearen eraginaren aurrean ardura-tsuak eta kritikoak izango diren pertsonak prestatu nahi ditugu. Eta, horretarako, gogoeta bultzatzen dugu. Iragarkiek eskaintzen duten produktuaz edo zerbitzuaz gain, "saltzen diguten mundu ideala" identifikatzeko gai izan daitezen nahi dugu.

Publizitatean, gizonak eta emakumeak ez dira modu berean agertzen, eta horri erreparatzearen garrantzia azpimarratzen duzue.

Bai. Bakoitzak dituen rola aztertzen ditugu. Oraindik ere, sexuaren arabera rola islatzen dira publizitatean: emakumeen kasuan, mendekotasuna, ahultasuna edota azalekoak izatea, adibidez; eta gizonak indartsu eta nagusitasuna erakutsiz agertzen dira. Bestalde, publizitate kanpaina asko menderatze egoerekin eta genero indarkeriarekin tolerantzia izaten dira, bai eta jostailuen publizitatearen kasuan ere.

Gizonek, dena den, gero eta presio handiagoa dute edertasun kanon horietara gerturatzeko.

Gizonezkoen edertasun kanonak gero eta zorrotzagoak dira, ziur aski, eta euren osasunaz, egoera fisikoaz eta itxuraz gehiago arduratzen diren gizonak agertzen dira publizitatean. Sare sozialek ere gizonen edertasun estandarrak zehazten dituzte.

Jabetzen al dira nerabeak gorputzaren gurtzak sortzen dituen arazo horiez guztiez?

Ikastetxeetan informazioa jasotzen dute, baina, batzuetan, adinaren arabera, publizitatearen eraginarekiko immuneak direla uste dute. Zenbat eta helduago izan, orduan eta kontzientzia handiagoa dugu publizitateak gorputz irudiaren pertzepzioan duen eraginaz, bai eta kontsumitzeko moduan duen botereaz ere.



Gorputzaren gurtza eta elikadura nahasmenak

Kontsumobideko kideek gorputzaren gurtzaren ondorioz sortzen diren elikadura nahasmenen berri ematen diete ikasleei. Eta, saioetan, publizitate mezuen arrisku faktoreak aztertzen dituzte. Hauek, besteak beste:

- Gure itxura fisikoa eta besteena gehiegi balioestea.
- Itxura fisikoari buruz egiten diren kritikak eta irainak.
- Konparazioak.

Horrez gain, autoestimu faltak edo arrisku faktore horiek sor ditzaketen elikadura nahasmenak eta gorputz nahasmen dismorfikoak aipatzen dituzte:

- Anorexia
- Bulimia
- Ortorexia
- Bigorexia

EAEko Hezkuntza Legea Biharamunerako koordinatuak

EAEko Hezkuntza Lege berriak agertoki berri batean jarri ditu Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxeak, irakasleak, hezitzaileak, langileak, ikasleak, familiak, hezkuntza eragileak eta, oro har, jendarte osoa.

*hik hasi*ren Hezkuntza Proposamenaren talaiatik begiratu diogu abagune berriari. Legeak zabalduetako aukerak, sortutako zalantzak eta aurrera begira garatu beharreko ildoak aletzen dira liburuxka honetan, betiere denontzat eta denona izango den euskal hezkuntza-sistema xede.



Monografiko berria



Bizitzarekin bat egiteko eguna

50

Proposamena

Ikasturte amaieran egokitzen da **udaburua** edo **udako solstizioa** (aurten ekainaren 20an izango da): urteko egunik luzeena. Gizaldiz gizaldi eta kultura guztietan lurrarekin eta bizitzaren zikloekin bat egiteko ospakizuan egin izan dira egun horretan. Ikasturtea amaitzeko modu esanguratsua izan daiteke egunaren berezitasunaz jabetzea.



Ikasturteko azken egunak apartekoak izaten dira, eta, are gehiago, egun horien berezitasunaz jabetzen baldin bagara: urteko egunik luzeenak ditugu, eta beraz, gaurik motzenak. Historikoki eta kultura guztietan esangura handiko egunak dira udako zein neguko solstizioen egunak, naturako elementuekin bat eginda, eguzkiak eta haren gabeziak lurraren emankortasunean eta gure bizitza zikloetan duten garrantziaz hausnartze-ko baliatu izan baitira. Orain, naturaren eta bizitzaren zikloetatik hain deskonektaturik gauden honetan, gizaldiz gizaldi egin diren gogoetak berpizteko abagune ederra eskaintzen digu ikasturtearen amaierak.

Solstizioa eta San Joan bezpera

Udako solstizioaren herri errituak ez dira solstizioaren egunetan ospatzen gaur egun, ekainaren 23tik 24rako gauean baizik. Eta, gainera, San Joan bezpera moduan ospatzen da herri gehienetan, suaren, uraren eta zuhaitzen errituak gordez. Joseba Aurkenerenak adierazten duenez, Europako antzinako egutegietan udaburua (udako solstizioa) ekainaren 24an ospatzen zen eta neguko solstizioa abenduaren 25ean. “Kristau erlijio berriak ezin izan zituen eguzkiaren zeru ibilaldiarekin loturiko errito jentil zaharrak ezabatu, eta horiek beren kulturara bereganatu nahian, Julio II. Aita santuak 354an ospatu zuen lehen aldiz Jesukristoren jaiotza, eguzkiaren sortze egun berean, garai hartan abenduaren 25ean erortzen zen neguburuan. Udaburuarekin gauza bera gertatu zen. Udaburua ekainaren 24an erortzen zen aro zaharretan, eta hortxe asmatu eta ezarri zuen San Joan eguna. 1528an Gregorio XII.a Aita santuak egutegi berria egin zuen, gaur erabiltzen duguna. Egutegi berriaren ezarpenak hainbat eguneko aldea ekarri zuen Europako antzinako egutegiaren aldean]. Horrela, udaburua —solstizioa—, ekainaren 21-22an gelditu zen. Baina jadanik, besta kristau bilakatuak ziren Eguberri eta San Joan, data zaharretan gelditu ziren”. San Agustinek hala esan omen zuen: “Guk ospatzen dugu egun hau ez sinesgabeek egiten duten moduan, eguzkiagatik, eguzkia sortu duenagatik baizik”.

Zer da solstizioa? *Solstizio* hitza latinetik dator (*sol*: eguzkia eta *sistere*: gelditu egon, ditu oinarrian). Ipar hemisferioan, planetaren ipar-hego ardatzaren inklinazioa 23,4 gradutara iristen da eguzkirantz udako solstizioan, eta beraz, egun hori eguzki-ordu gehien dituen eguna da eta gaurik laburrenekoa. Inklinazio puntu goren horretara ekainaren 20tik 22ra bitarteko une batean iristen da Lurra, aurreko ekainaren 20ko 22:51 iritsiko da. Hego hemisferioan kontrakoa gertatuko da: eguzki-ordu gutxien dituen eguna izango da eta gaurik luzeena. Hemen neguko solstizioan gertatzen den moduan.

Solstizioak kultura eta gizaldi guztietan gogoe-ta handiak eragin izan dituzten fenomenoak dira, unibertsoa ziklikoa zela jakitera iritsi baitziren solstizioei esker, eta hala, urtearen banaketa ezagutu zuten. Euskal tradizioak jasotzen duenez, urtea, lehenik, bitan banatu zuten: uda eta negu; ondoren, ekinozioen arabera, udaberri, uda eta udazken bereiziko zituzten. Solstizioaren ezagutzak "giza izateaz eta naturaz hausnartzeko eta ulertzeko bide" eman diete garaian garaiko gizakiei, Joseba Aurkenerena Barandiaran historialari eta irakasleak jasota daukan moduan: "Garai haie-tako gizakiek gogoeta handiak egin zituzten ama lurraren zikloez, bizi gurgilaz, emankor-tasunaz, egunaren eta gauaren txandatzaz, eguzkiaren inguruko lurraren mugimenduaz, urtaroez, ilargiaren aldiez, denboraren muga-gabetasunaz, naturaren indarra menderatzen zuten jainkoez, gizakiaren bizitza laburrez..."

Nola ospatu dira solstizioak? Euskal tradizioan udako solstizioa suarekin, urarekin eta zuhaitz nahiz landareekin lotu izan dugu. Bereziki sua izan da nagusi udako solstizioa-ren herri errituetan, gaurdaino mantendu diren ohiturek erakusten duten moduan. Juan Gar-mendia Larrañaga etnografoak jaso zuen gi-san, suak eguzkiaren indarra irudikatzeaz gain, indar bateratzailea dauka, "suak eguzkiaren

botere bizi-emalearekin elkartzen gaitu, bere garbikuntza botere berezkoa ahaztu gabe".

Ura eta natura (landareak eta zuhaitzak) ere oraindik presente daude solstizioa ospatzeko herri-ohituretan. Horiek ere garbitzearekin eta indarberritzearekin zerikusia dute, funtsean, hasiko dugun sasoi berrira biziberrituta sartzearekin lotuta daude errituak. Hala nola, hainbat herritan sua itzaltzearekin batera, iturri zehatz batzuetara joaten dira herritarrek, hango ur berria edateko edo urarekin azala garbitzeko, hala nola Zadorraren edo Ega-ren iturburuetara. Belarrek ere garbitze eta biziberritze funtzioa dute egun horietan, eta ohikoa izaten da, egun horretan, sahatsarekin, ezkaiekin edo asunarekin egositako urarekin garbitzea azala.



Eskolan urteko egunik luzeena ospatzeko ekintzak:

Sua egitera animatzen denak oroitu dezala txilarrarekin piztu ohi dela sua. Herri askotan, herriko ikastetxea utzi behar duten gaztetxoek pizten dute sua, eta bertso batzuk kantatzen dituzte.

Ura: garbitzeko, eta azalberritzeko, hainbat landare bildu eta horiekin egositako ura balia liteke aurpegiak garbitzeko erritu sinboliko bat egiteko.

Landareak: hainbat herritan erramuak egiten dituzte loreekin eta landaraee-kin, eta, ondoren, etxe atarietan eskegi-tzen dituzte.

Jakin-mina zorroztu

*hik hasi*ren produktu berriak webguneko dendan daude eskuragarri. Poltsa, estutxe eta koaderno hauekin urtea ezinhobe hasiko duzue!





Vanessa Rodriguez,
Axun Segurola eta
Egoitz Lizundia

Elgoibarko Meka LHIIko HHko
Goi Mailako zikloko irakasle taldea

Atzeko atetik

Hezitzaile berrien erronka

54

Sigmund Freudek 1925ean idatzi zuen heztea, sendatzea eta gobernatzea "ezinezko" hiru lanbide direla eta zeregin horiek betetzea ezinezkoa izateak eta inoiz behar bezala ez direla beteko jakiteak ez duela eragotzen, etengabe zeregin horiek betetzen tematzea. Hirurak praktikan eta hitzaren errendimenduan oinarritutako jarduerak direla zioen.

Hori horrela izanda, nola trebatu ditzakegu etorkizuneko hezitzaileak hitz bakoitzak duen garrantziaz jabe daitezen? Egiten dugun keinu bakoitzaren garrantziaz kontura daitezen?

Komunitaterako lan egitearen garrantziaz ohartuta dagoen hezitzailea dugu ortzi-mugan; aniztasunaren aberastasunean sinisten duena, elkarlanaren indarrarekin egunero-kotasunean sortzen diren arazo eta ezustekoei aurre egingo diona. Garai berriak dira, digitalizazioak eta metabertoaren mundu

birtualak eraldaketa azkarrak bultzatzen ditu. Munduaren berehalakotasun eskaera horretatik, geratu, pentsatu, hausnartu eta irizpide propioekin erantzungo duena.

Teorian oinarritutako praktika esanguratsuan formazioa euskarri inportantea izango da haientzat, artatuko dituzten haurren, familien eta komunitateko partaideekin elkarlanean aritzeko eta, aldi berean, belaunaldi berrien eta etorkizuneko gizartearen zumeak eraikitzeko funtsezkoak izango dira.

Hezitzaileak hezten ari gara. Haurra zainduko duten pertsona arduratsuak. Haur horiek etorkizunean izango diren pertsonaren oinarriak eraikitzen ari direnak, haien sustraiak errotzen. Baina haurrak ez dira soilik etorkizuna, oraina ere badira. Orain eta hemen utzi behar diegu izaten, hazten, haien bidea egiten. Eta hezitzaileak hor egon beharko du, ondoan, bidelagun!

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko


**Izan zaitez
HikHasitarra!**

www.hikhasi.eus



hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



udako topaketak 2024

**Uztailak
2, 3 eta 4
Donostian**

22 ikastaro anitz
eta berritzaile uda
giroan jakin-mina
zorrozteko.



www.hikhasi.eus/formazioa

Izen-ematea zabalik